ZIUR FUNDAZIOAREN PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA (ESPEDIENTE ZK.: 2021008)

I.- EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIAREN TESTUINGURUA

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 124. artikuluari jarraituz, agiri honen helburua prestazioak arautuko dituzten ezaugarri tekniko bereziak zehaztea da. Hartara, baldintzen nondik norako objektiboak eta aholkularitza zerbitzua emateko gutxieneko eskakizunak eta baldintza tekniko orokorrak azalduko dira.

II.- ZERBITZUAREN XEDEA ETA NONDIK NORAKOAK

Lizitazio honen funtsa aholkularitza zerbitzua kontratatzea da, ZIUR Fundazioaren plan estrategiko berria eta bilakaera zehazteko, aurreko 2018-2021 Plan Estrategikoa bete ostean.

Orain heldu behar zaion helburua zera da, Ziur Fundazioaren jarduera diru-sarrerak sortzeko gauza izango den lan esparru bat finkatzea, aurrekontuen ekarpen publikoa murriztu ahal izateko. Edonola ere, egoera horri testuinguru jakin batean erreparatu behar zaio, Fundazioaren jarduerari eta sorrerari dagokien testuinguruan. Hori dela eta, jardueraren egungo inguruabarrak kontuan hartu behar dira. Planteamendu ekonomiko-finantzarioaren oinarriaz hausnartzeko prozesua egin behar da, beraz, eta premia horren atzean bi bektore daude, nagusiki:

- Batetik, Ziur Fundazioan hausnarketa prozesu bat egina dute, sorreraren beraren harira. Prozesu horrek helburu argia zuen: ordura arte ez zegoen proiektu bat sortzea, ingurune sektorial jakin batean. Horren barnean nabarmentzekoa da zibersegurtasun industrialeko zerbitzuen eskaera eta eskaintza ahula dela, atomizatua eta askotariko espezializazio mailekin. Gaur egun, ordea, inguruabarrak bestelakoak dira: ekoizpen prozesuak digitalizatu diren honetan, zibersegurtasuna bene-benetako premia da.

- Eskaintzaren mapa ere oso bestelakoa da; askoz aukera gehiago daude, eta proposatzen diren irtenbideak gero eta neurri handiagoan egokitzen zaizkie askotariko beharrei.

Laburbilduz, proiektuaren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sektoreak nolako errealitatea duen agerian geratu behar da, eta Ziur hala sektorean nola erakundeetan kokatu egin behar da. Horrez gain, jardueraren finantzazioa ere jorratu beharra dago eta, horren baitan, helmuga ahalik eta autofinantzazio handiena lortzea da. Betiere, lehentasuna lurraldeko garapen sozioekonomikoan parte hartzea da.

Horretarako, proiektuaren giltzarriak hauek izan behar dute:

- Araudi juridikoen errealitatea
- Ingurune tekniko-teknologikoa
- Eragileen mapa eta zeregina
- Estrategia ekonomiko-finantzarioa

Fundazioaren ikuspegitik, hura sortu eta jarduerak martxan jartzeko faseak jada eginak daudela esan daiteke. Hartara, beste fase bati heldu behar zaio orain: Fundazioa sendotu eta egungo testuinguruan kokatzeko faseari, bai zibersegurtasun industrialaren ikuspuntutik bai harremanen ikuspuntutik, sektoreko, eremu publikoko eta eremu pribatuko eragileekin.

Beraz, dagoeneko badaude lantalde egituratua eta instalazioak. Espezifikotasunagatik, laborategia aipatzeko modukoa da. Halaber, eremu sektorialean kokatzeko jarduketak egin dira, enpresa industrialetan eta nitxo berekoetan. Ziur erreferentea da zibersegurtasun industrialean, eta erantzun bat espero da harengandik.

Hortaz, munta handiko esku-hartzea proposatzeko bi arrazoi hauek daude: ingurua nabarmen aldatu da, batetik; eta hasierako etapak amaitu egin dira, bestetik. Hala, Ziur Fundazioaren presentzia indartzeko eta Fundazioaren barruan sektoreak zeregina izateko unea da. Bigarren arrazoiari begira, sakon jorratu beharreko funtsezko gai bat dago: enpresak inplikatzea eta Fundazioan parte hartzea. Horren eraginez, eragile berriak sartzeko gogoetari espazio handi samarra eman behar zaio, eta Fundazioaren elkarlaneko gobernantzaren ereduaren oinarrizko ezaugarri bat landu behar da: elkarlan publiko-pribatua.

III.- ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA

Enpresa esleipendunak, zerbitzua eman bitartean, agiri honetako II. atalean adierazi den kontratuaren xedea betetzeko behar adina jarduketa egingo ditu.

Edozein kasutan ere, jarraian zehaztuko diren jarduerak egingo ditu, hiru fase hauetan multzokatuta:

1. Analisi estrategikoak

2. Adierazpen estrategikoa

3. Estrategia eta Ekintza Plana

III.1.- Analisi estrategikoa Lan honen helburua zibersegurtasun sektorea barrutik eta kanpotik aztertzea eta hura eguneratzea da. Horretarako, eragile nagusiak identifikatuko dira, zerbitzuen egungo testuinguru juridikoa eta ekonomikoa ezagutze aldera. Horri begira, abiapuntua proiektuaren helburu osoa izango da; hots, ZIUR sendotu eta egungo testuinguruan kokatzeko gogoeta egitea. Hartara, eragile berriak sartuko dira, elkarlaneko gobernantzaren ereduarekin bat etorriz jokatuko da, eta elkarlan publiko-pribatua zein Fundazioaren autofinantzazioa bilatuko dira.

Horrenbestez, alderdi hauek sakon aztertu behar dira, barrutik eta kanpotik:

Barruko azterketa:

- **Aurretiko gogoeta estrategikoa:** ZIUR Fundazioaren estrategiaz gogoeta egin behar da, eta estrategia hura epe labur eta ertainera zehaztu, Ziur sektorean eta erakundeetan kokatzeko. Bestalde, jardueraren finantzazioa jorratu behar da eta, horren baitan, helmuga ahalik eta

autofinantzazio handiena lortzea izango da. Betiere, lehentasunak lurraldeko garapen sozioekonomikoan parte hartzea izan behar du, argi eta garbi.

- **Lege kontuen azterketa:** Lege eskakizunak aztertu behar dira, ZIUR Fundazioaren izaera juridikoa zein den erreferentzia gisa hartuta: foru fundazio publikoa. Horren ondorioz, jarduerak aztertzen direnean kontuan hartu beharreko eskakizun batzuk daude. Horretarako, sakon aztertu beharko da hau guztia: Ziur Fundazioaren estatutuak, fundazioen legea, sektore publikoaren legedia eta Ziur Fundazioari zein haren jarduerari eragin diezaiekeen legedia.

  Ildo horretan, indarreko legedia ez ezik, lehia babesten duten organismoen jarduna ere aztertu behar da eta, bereziki, fundazio publiko batek zer egoeratan parte har dezakeen merkatuan.

- **Gaitasun teknologikoak, zibersegurtasuna:** Ziur Fundazioaren ekipamenduak ikuspegi tekniko eta teknologikotik aztertu behar dira; batik bat, gaur egun erabilgarri dauden ekipoek nolako ekarpena egiten duten benetan, zibersegurtasunaren barruan zer jardueratan parte har daitekeen ikusteko edo zer behar dauden beste jarduera batzuk egin ahal izateko. Horren harira, laborategia giltzarri da, orain erabilgarri baitago, eta lurraldeko beste eskaintza batzuekin nolako harremana duen ere garrantzitsua da. Bereziki interesgarria izango da lehiarekin lotutako elementuak aztertzea, eta nolako osagarri lan posibleak sor litezkeen.

- **Esparru ekonomikoaren azterketa:** Ziur Fundazioaren aurrekontuak eta finantzazio beharrak aztertu behar dira.

Kanpoko azterketa:

- **Ingurune sektorialaren azterketa, ZIUR Fundazioaren harremanak sektorearekin (entitate publiko eta pribatuak):**
  - Gipuzkoako zibersegurtasun sektorearen heldutasun mailaren azterketa:
    - Sektorearen eta etorkizunerako ikuspegiaren azterketa
    - Sektorearen joeren azterketa
    - Eskaintzaren azterketa
    - Beharren eta eskaeraren azterketa

  - Ziur Fundazioa merkatuko jardueretan sartuz gero, egoera horrek eragingo liekeen enpresak edo erakundeak aztertu behar dira. Horri begira, Gipuzkoako zibersegurtasun industrialaren balio katea aztertu beharko litzateke, eta Ziur Fundazioaren jarduera lurraldeko testuinguru sektorialean kokatu.

- **Erakundeen ingurunearen azterketa:** Ziur Fundazioa erakunde esparru konplexu samar baten barnean dago. Errealitate hori aintzakotzat hartu behar da, beraz, eta argi finkatu horrek dakartzan mugak eta eremu guztietako erakunde eragileekiko harremanak; alegia, lurralde historikoko, EAEko eta estatuko erakundeetako eragileekin bideratzen diren harremanak.

- **Erreferentzia esparruaren azterketa:** inguruan ezaugarri berdintsuak dituzten organismoak zer egoeratan dauden ikusi behar da. Hartara, organismo horiek identifikatu beharko dira, eta nor bere ekosisteman nola kokatzen den aztertu beharko da.

III.2.- Adierazpen estrategikoa

Fase honen helburua ZIUR Fundazioaren *negozio eta jarduketa eredua* zehaztea da. Ildo horretan, enpresa esleipendunak bideragarritasun eta aukera azterketa proposatuko du eta, hartan, hau guztia jasoko du, gutxienez:

- Aukera eta egokitasun plana
- Lege bideragarritasunaren azterketa
- Erakunde bideragarritasunaren azterketa
- Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa
- Bideragarritasun teknologikoaren azterketa

Horretarako, enpresa esleipendunak hau guztia identifikatuko du:

- ZIUR Fundazioaren posizioa eta balio bereizgarria
- Zerbitzu zorroa eta horren bideragarritasuna

Azkenik, **Plan Estrategikoaren** ondorio nagusiak, gomendioak eta **ardatz nagusiak** aurretiazko dokumentuan jasoko dira.

III.3.- Estrategia eta Ekintza Plana

Aurreko faseetan ateratako ondorioak oinarritzat hartuta, enpresa esleipendunak Plan Estrategikoa zehaztuko du, litezkeen egoerak, eredua eta ildo estrategikoak barne.

Identifikatutako ildo estrategiko nagusiak nola hedatuko diren zehazten denean, helburu espezifikoak, epeak eta aurrekontu zehatzak ere jasoko dira. Horren ostean, esleipendunak Ekintza Plana xehe-xehe azalduko du, ekintzak bideratu, hartara helburuak erdiesteko.

IV.- METODOLOGIA ETA LAN PLANA

Enpresa lizitatzaileak egiten duen proposamenean, metodologia eta lan plana jasoko dira, baita zerbitzuaren mugarri nagusiak ere, datak eta guzti. Orobat, eman beharreko lanen zerrenda egingo da eta, bakoitzean, deskripzioa eta gutxi gorabeherako egitura jasoko dira. Gutxienez, lan hauek egin eta eman beharko dira:

- Analisi estrategikoa
- Plan estrategikoaren aurretiko dokumentua
- Plan Estrategikoa

- Ekintza Plana

Lanen garapena eta jarraipena bideratu asmoz, ZIUR Fundazioak, zerbitzuaren premien arabera, beharrezkotzat hartzen diren adina dokumentu aurkezteko eska diezaioke enpresa esleipendunari, baita zerbitzua behar bezala emateko egokiak diren lan edo informazio bileretara joateko ere. Esleipendunak erabakiko du bilerak aurrez aurre edo bide telematikoz egingo dituen.

Dokumentu eta ekintza guztien planteamendua ele bitan egingo da, euskaraz eta gaztelaniaz, eta horrek ez du prezio edo zordunketa gehigarririk eragingo. Horrelakoak prestatzen direnean, ZIUR Fundazioaren nortasun korporatiboaren gaineko eskuliburuari jarraituko zaio.

Komunikazio politika zehatzak aplikatuko dira, hizkera, irudiak eta edukiak ez daitezen sexistak eta androzentrikoak izan.

VI.- LANEN IKUSKARITZA ETA KONTROLA

Enpresa esleipendunak erraztu beharko ditu lanen garapena egiaztatzeko ZIUR Fundazioari dagozkion ikuskaritza eta kontrol eginkizunak, eta jasotzen dituen oharrak eta gomendioak zorrotz bete beharko ditu.

Edonola ere, ZIUR Fundazioak erabakiko du jarraipena egiteko era (bilerak, aktak, txostenak...) aldatzea, beharrezkoa irizten badio.

Orobat, esleipendunak kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman behar ditu, ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe; adibidez, lan edo informazio bileretara joatea. Betebehar hori bermea amaitu bitartean mantenduko da.

X.- KONTRATUA GAUZATZEKO KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratu honen baitan egiten diren lan guztiak konfidentzialak izango dira. Beraz, enpresa esleipendunak ezingo ditu lanei buruzko datuak edo informazioa baliatu, ezta Ziur Fundazioak emandako dokumentuei buruzkoak ere, eta ezingo dizkie hirugarrenei eman. Horren harira, enpresa esleipendunak eskura dituen baliabide guztiak erabili beharko ditu kontratua gauzatu bitartean erabil dezakeen informazioa konfidentziala izan dadin, baldintza administratibo berezien agiriko 36.3 baldintzan finkatutako betebeharren kalterik gabe, eta datu pertsonalak babesteko indarreko araudiaren ondoriozko gainerako betebeharren kalterik gabe.

72724351F KOLDOBIKA PECIÑA (R: G75203067)

Digitalki sinatuta norengandik: 72724351F KOLDOBIKA PECIÑA (R: G75203067)
Data: 2021.05.06 11:11:22 +02'00'